Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko ekainaren 30a, asteartea — 122 — Martes, a 30 de junio de 2015

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2015eko apirilaren 22an egindako Osoko Bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion Belena patioko (Korreo 25) bizikleten aparkalekuko plazak erabiltzeko lizentzien esleipenerako arautegiari.

Arau horiek jendaurrean egon ziren 30 egunetan eta denbora horretan ez zen egon alegaziorik. Beraz, behin-betirako onartuta gelditu dira.

Ondorioz, aipameneko Arauen testuaren eduki osoa argitaratzen da. Interesdunek hauen aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko aukera izango dute, bi hilabeteko epearen barruan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Arauen eduki osoa hau da:

*Belena Patioko (Korreo Kalea 25) bizikleten aparkalekuko plazak erabiltzeko lizentzien esleipenerako arautegia.*

1. Helburua.
2. Erabilpen-erregimena eta prezioa.
3. Onuradun izateko baldintzak.
4. Eskabide-orria.
5. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.
6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.
7. Aurretiko zerrenda eta erreklamazioak.
8. Onartutakoen behin betiko zerrenda.
9. Adjudikatzeko era: zozketa publikoa.
10. Adjudikaziodunen behin-behineko zerrenda eta itxarote-zerrenda.
11. Behin betiko zerrenda, itxarote-zerrenda eta adjudikatzeko prozedura.
12. Behin betiko adjudikazioaren ondorengo betebeharrak.

Eranskina I. Eskaera-orria.

Eranskina II. Zinpeko deklarazioaren eredua.

*1. Helburua.*

Arautegi honek helburu hauxe dauka: Tolosako Korreo 25 kalean (Belena patioa) kokatzen den bizikleten aparkalekuak erabiltzeko lizentzien emakidako baldintzak eta erabilpen erregimena ezartzea.

Gordelekuaren zein beren instalazioen ezaugarriak «Korreo kaleko barne patioko bizikleten gordelekua» izeneko proiektuan jasotzen dira. Gordeleku horrek, hasiera batean, bizikletentzako 136 aparkaleku izango ditu. Kopuru hau, espazioaren okupazio baldintzen arabera, handiagoa izan daiteke.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Pleno, en Sesión celebrada el 22 de abril del 2015, acordó aprobar inicialmente el Reglamento de la adjudicación de licencias para la utilización de las plazas de aparcamiento de bicicletas en el patio Belena (Korreo 25).

Dichas Normas fueron sometidas a información pública por 30 días, sin que se haya formulado alegación alguna. Por tanto, quedan definitivamente aprobadas.

Consecuentemente, se procede a la publicación íntegra del contenido del texto, señalando a los interesados que, contra las mismas, cabe interponer recurso contencioso administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

El contenido íntegro de las Normas es el siguiente:

*Reglamento para la adjudicación de licencias para el uso de las plazas del parking de bicicletas de Belena Patioa (Korreo Kalea 25).*

1. Objeto.
2. Régimen de uso y precio.
3. Requisitos para ser beneficiario.
4. Impreso de solicitud.
5. Lugar y plazo para la presentación de solicitudes.
6. Documentación a aportar.
7. Lista previa y reclamaciones.
8. Listado definitivo de admitidos.
9. Forma de adjudicación: sorteo público.
10. Listado provisional de adjudicatarios y lista de espera.
11. Listado definitivo, lista de espera y proceso de adjudicación.
12. Obligaciones posteriores a la adjudicación definitiva.

Anexo I. Impreso de solicitud.

Anexo II. Modelo declaración jurada.

*1. Objeto.*

El presente reglamento tiene como objeto establecer las condiciones y el régimen de uso de las licencias para la utilización de las plazas del parking de bicicletas situado en el patio interior del n.º 25 de la calle Correo, Belena patioa.

Las características tanto del parking como de las instalaciones están recogidas en el proyecto titulado «Parking de bicicletas del patio interior de la calle Correo». El parking contara, en principio, con 136 plazas para bicicletas. El numero de plazas puede aumentar, en base a las condiciones de ocupación del espacio.

EK\CV GAO-I-2015-06058

Era berean, lekua dagoen heinean, beste erabilpen osagarrietarako erabili ahalko da bere kasuan. Hala nola, umeen karritoak gordetzeko.

*2. Erabilpen-erregimena eta prezioa.*

Aparkalekuak erabiltzeko lizentziak prekarioan emango dira, eta iraupena esleipenduna baja eman bitarte izango da, gehienez ere 5 urteraino luza daitekeelarik.

Aparkalekuaren erabilpen ordutegia goizeko 7:00tatik gaueko 23:00ak bitartekoa izango da. Aparkalekuaren erabilpenak sor ditzazken arazoak edo gorabeherak tarteko, Tolosako Udalak aipatu ordutegia egokitzeko eskubidea izango du.

Aparkalekuek zenbakia ipinita edukiko dute, 1etik 136ra (142ra bere kasuan).

Erabiltzeko erregimena eta baldintzak izango dira lizentzian eta aparkalekuak adjudikatzeko eta kudeatzeko araudi honetan ezarritakoak. Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharko ditu:

Fidantza bat, 10 €-koa. Fidantza itzuliko da aparkalekuaren erabilera bukatzen denean.

Urteko kuota – Aparkalekua erabiltzeagatik.

Erabiltzeagatik urteko kanona: 60 € (5 €/hilean).

Lehen urtean likidatuko dira, batetik, erabilitako hilabeteei dagokien zatia (2015 urterako 30 €) eta, bestetik, erabilpen-lizentzian zehaztutako fidantza.

Urteko kanon hau banku-helbideratzearen bitartez ordainduko da. Erabiltzaileak ordainketa bakarra edota 30 €ko bi 6 hilekoan egiteko aukera izango du.

Kanon hau eguneratuko da Hego Euskal Herriko lau probintzietako KPIaren arabera.

Bajaren bat suertatu ezkero, esleipendun berriek, alta eman eta urte naturala amaitu bitarte falta diren hilabeteen araberako kopuru proportzionala ordinduko dute. Hilabetearen lehen 15 egunetan lizentzia esleitzen zaienei hilabete osoa kobratuko zaie eta bigarren hamabostaldian esleitzen zaienen kasuan hurrengo hiletik kobratuko zaie.

*3. Onuradun izateko baldintzak.*

Bizikleten aparkalekuak erabiltzeko lizentzien onuradun izan daitezke Tolosako «7 Hirigune Historikoa» esparruko kaleetako etxebizitzetan bizi diren bizilagunak (Andre Mari kalea, Andre Mari plaza, Armeria plaza, Aroztegieta kalea, Atari kalea, Berdura plaza, Berria plaza, Enperadore kalea, Errementari kalea, Errota plaza, Felipe Gorriti plaza, Korreo kalea, Leitza kalea, Letxuga kalea, Nagusia kalea, Rondill kalea 1etik 31ra bakoitiak, Triangulo plaza 1, Zaharra plaza eta Zerkausia kalea), eta, gainera, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Tolosako Udalaren zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.

b) Hainbat pertsona fisiko etxebizitza berean bizi ezkero, erroldatutako pertsona aina bizikleta gordetzeko eskaera egiteko aukera izango dute.

c) Eskatzaile kopurutik ondorioztatzen den etxebizitza kopuruak aparkaleku kopurua gainditzen ez duen heinean, etxebizitza bakoitzak bermatuta izango du automatikoki aparkaleku bat. Eta gainontzeko aparkalekuak zozketa bidez esleituko dira.

Adingabeen eskabideek etorri beharko dute guraso edo tutoreen abala dutela, eta pertsona helduak izango du erantzukizuna, Araudi honen ondorioetarako.

*4. Eskabide-orria.*

Eskabide-orria baldintza izango da plegu honetako I Eranskina bezala azaltzen dena.

Así mismo, en la medida que haya espacio, podrá utilizarse la plaza del parking para otros usos complementarios. Por ejemplo, para guardar los carritos de los niños.

*2. Régimen de uso y precio.*

Las licencias para el uso de las plazas de parking se concederán en precario y se extenderán hasta que el adjudicatario se de baja, para un periodo máximo de 5 años.

El horario de uso del parking será de 7:00 de la mañana a 23:00 de la noche. El Ayuntamiento de Tolosa se reserva el derecho de adecuar ese horario ante los problemas o incidencias que pudieran derivarse del uso del parking.

Las plazas dispondrán de un número, del 1 al 136 (en su caso al 142).

El régimen y las condiciones de uso serán las establecidas en la licencia y en el presente reglamento de adjudicación y gestión de las plazas de aparcamiento. El presente reglamento se publicará en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

Cada usuario deberá abonar los siguientes conceptos:

Fianza de 10 €. La fianza se devolverá cuando el beneficiario agote el periodo de cesión de la plaza.

Cuota anual – Por el uso de la plaza.

Canon anual por el uso del parking: 60 € (5 €/mes).

El primer año se liquidarán, por un lado, la parte correspondiente a los meses de uso (30 € para el 2015) y, por otro, la fianza determinada en la licencia de uso.

Este canon anual se abonará mediante domiciliación bancaria. El usuario podrá hacer un pago único anual o dos semestrales de 30 €.

Este canon se actualizara tomando como referencia el IPC anual de las cuatro provincias de Hego Euskal Herria.

En caso de que algún beneficiario se dé de baja, los nuevos adjudicatarios deberán abonar el importe proporcional que corresponda a los meses que faltan para finalizar el año natural. A los beneficiarios que se les adjudique la licencia en los 15 primeros días del mes, se les cobrara la mensualidad completa y a los que se les adjudique durante la segunda quincena se les cobrara a partir del mes inmediatamente posterior.

*3. Requisitos para ser beneficiario.*

Podrán ser beneficiarios de las licencias para utilizar el parking de bicicletas los vecinos del ámbito 7 «Casco Histórico» (calle Andre Mari, plaza Andre Mari, plaza Armeria, calle Aroztegieta, calle Atari, plaza Berdura, calle Berria, calle Emperador, calle Herreros, plaza Errota, plaza Felipe Gorriti, calle Correo, calle Leiza, calle Letxuga, calle Mayor, calle Rondilla impares del 1 al 31, plaza Triangulo 1, plaza Zaharra y calle Solana), y que cumplan, además, con los siguientes requisitos:

a) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Tolosa.

b) En caso de convivir varias personas físicas en el mismo domicilio, podrán solicitar tantas plazas de bicicleta como personas estén empadronadas.

c) Una vez calculado el número de viviendas que se derive del total de solicitantes, y en la medida que ese número no exceda de las plazas del parking, cada vivienda tendrá garantizada automáticamente una plaza. Y el resto de plazas se adjudicaran mediante sorteo.

Las solicitudes de los menores habrán de presentarse avaladas por el padre, la madre o el tutor, siendo la persona adulta la responsable a efectos de este reglamento.

*4. Impreso de solicitud.*

El impreso de solicitud será el que figura como anexo I de este pliego de condiciones.

EK\CV GAO-I-2015-06058

*5. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.*

Zozketan parte hartzeko nahitaezkoa da interesatuek beren eskabideak aurkeztea plegu honetako I eranskinean azaltzen den eskaera-orria erabilita.

Eskaera-orriak behar bezala beteta aurkeztuko dira Tolosako Udaleko informazio bulegoan (Plaza Zaharra 6), Tolosako Udalak ezarritako epea bete aurretik. Bulego ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

Epe hau Tolosako Alkatearen erabakiaren bitartez luzatu liteke. Ezarritako epea bukatu ondoren aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko nahiz eta jasota egon Postetxera eman zirela epea bukatu aurretik, non eta Udalari telex, fax, telegrama edo posta elektronikoz, eskabide-orria bidalitako dataren frogagiria igortzen ez bazaio postaz bidali zen egunean bertan. Posta elektronikoaren bidez bidalitako jakinarazpenek balio izango badute bat etorri behar dute Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Orotariko Arautegiko 80.4 artikuluan xedatutakoarekin.

*6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Onartua izateko baldintzak egiaztatzeko, eskaera-orriarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da.

a) EHNA, NANa edo berorren ordezko den beste agiri legalen baten fotokopia.

b) 3. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitorpena (II Eranskinaren modeloaren arabera).

Tolosako Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatzea eta erresidentzia benetan hala direla, arau-hausterik batere ez dagoela eta Udalaren zerga-betebehar edo beste mota bateko betebehar guztietan egunean dagoela.

Udalak eskatzaile bakoitzari eskatu ahal izango dio egoki iruditzen zaion edozein dokumentazio gehigarri, eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

*7. Aurretiko zerrenda eta erreklamazioak.*

Tolosako Udalak, eskabide-orrietan jasotako datuak benetakoak direla egiaztatu ondoren, aurretiko zerrenda bat osatuko du eskatutako baldintzak betetzen dituztenekin.

Honen ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda Udaletxeko iragarkien panelean argitaratuko da eta Udaletxeko web orrian. 10 egun naturalen epean erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute zerrenda azaltzen direnek eta, eskaera onartu ez zaiela-eta, zerrendatik kanpo geratu direnek.

*8. Onartutakoen behin betiko zerrenda.*

Jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da Udaletxeko iragarkien taulan eta Udalaren web orrian.

Behin betiko ebazpenaren kontra berraztertzeko errekurtso bat jar daiteke, edo, bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtso bat, hala badagokio, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Behin betiko zerrendan datu hauek azalduko dira:

— Eskabidean azaltzen den pertsonaren nortasun agiri bat.

— Erakundeak eskatzaile bakoitzari zozketa bidez esleitutako zenbakia.

*5. Lugar y plazo para la presentación de solicitudes.*

Para participar en el sorteo, es imprescindible que los interesados registren sus solicitudes conforme al impreso de solicitud que figura en el anexo I de este pliego.

Los impresos de solicitud debidamente cumplimentados han de registrarse en la Oficina de Información del Ayuntamiento (Plaza Zaharra 6), antes del vencimiento del plazo establecido por el Ayuntamiento de Tolosa. Horario de oficina de lunes a viernes, de 8:00 h. a 14:00 h.

Este plazo podrá ser prorrogable mediante acuerdo del Alcalde de Tolosa. Las solicitudes presentadas con posterioridad al plazo fijado para su recepción no serán admitidas aunque conste que se entregaron en Correos antes de la finalización del plazo, salvo que se remita al Ayuntamiento de Tolosa por telex, fax, telegrama o correo electrónico el justificante de la fecha de remisión de la solicitud en el mismo día que se envió por correo. El envío del anuncio por correo electrónico se ajustará a lo establecido en cuanto a su validez en el artículo 80.4 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

*6. Documentación a presentar.*

Para acreditar que se cumplen los requisitos para ser admitido, junto a la solicitud es obligatorio presentar la siguiente documentación:

a) Fotocopia del EHNA, DNI o documento que legalmente le sustituya.

b) Documentos y/o declaración jurada (según modelo del Anexo II) de que cumple los requisitos establecidos en la base 3.

El Ayuntamiento de Tolosa comprobará de oficio el empadronamiento y la residencia efectiva del solicitante, la no concurrencia de ninguna infracción y si está al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Tolosa.

El Ayuntamiento podrá requerir a cada solicitante aquella documentación complementaria que considere oportuna, a fin de comprobar el cumplimiento de los requisitos exigidos.

*7. Listado previo y reclamaciones.*

El Ayuntamiento de Tolosa, practicadas las comprobaciones oportunas sobre la veracidad de los datos recogidos en las solicitudes, procederá a elaborar una lista previa de aquellos que cumplen los requisitos.

Una vez elaborada, la lista previa de admitidos y excluidos será expuesta en el Tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento, para que en el plazo de diez (10) días naturales los interesados puedan formular reclamaciones, tanto los solicitantes integrados en la lista, como aquéllos que no figuren en dicha lista por no haber sido admitida a trámite su solicitud.

*8. Listado definitivo de admitidos.*

Tras la resolución de las reclamaciones, se publicará la lista definitiva de los aceptados y los excluidos en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

Se podrá interponer recurso de reposición contra la resolución definitiva, o bien recurso contencioso-administrativo, si procede, ante el Juzgado de lo Contencioso- Administrativo de Donosita.

En la lista definitiva figuraran los siguientes datos:

— Documento de identidad de la persona que aparece en la solicitud.

— El numero que el ayuntamiento haya asignado a cada solicitante mediante sorteo.

*9. Adjudikazio-prozedura: zozketa publikoa.*

Eskatzaile kopurutik ondorioztatzen den etxebizitza kopuruak aparkaleku kopurua gainditzen ez duen heinean, etxebizitza bakoitzak bermatuta izango du automatikoki aparkaleku bat. Eta gainontzeko aparkalekuak zozketa bidez esleituko dira.

Edozein kasutan, bizikleta aparkaleku guztiak zozketa publiko baten bitartez adjudikatuko dira.

Behin betiko zerrendak argitaratzen direnean, zozketaren eguna, ordua eta tokia jakinaraziko da.

Zozketa Tolosako Udaleko idazkariaren aurrean egingo da, edo idazkariak ordezko gisa izendatutako pertsonaren aurrean, horretarako jarritako tokian.

Sarrera libre izango da zozketa ikusi nahi duten guztientzat.

Aipatutako zozketa eta gorabeheren akta jasoko du Udal Idazkariak edo hark horretarako baimendutako pertsonak.

Aparkalekuaren esleipena zozketaren momentuan egingo da, hau da, aparkaleku bakoitzeko adjudikaziodun bat esleituko da.

*10. Adjudikaziodunen behin behineko zerrenda eta itxarote-zerrenda.*

1. Adjudikaziodunen behin behineko zerrenda eta itxarote-zerrenda argitaratuko dira udal iragarki taulan eta Udaletxeko web orrian.

Zerrenda horietako edozeinetan azaltzen diren pertsonek erreklamazioak aurkeztu ditzakete zerrenda horren kontra 3 egun naturaleko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2. Adjudikaziodunei behin behineko adjudikazioa jakinaraziko zaie eta 3 eguneko epea emango zaie hura onartu edo ukatzeko. Uko egitea idatziz egingo da udal Informazio Bulegoan.

Behin behineko esleipendunak bete beharreko baldintzak egiaztatzerakoan behin betikoak bihurtuko dira. Kontrako kasuan (hau da, esleipenduna plegu honetan eta indarrean dagoen arautegian aipatzen diren baldintzak ez baditu betetzen), pertsonari dagokion aparkalekua libre geratuko da eta berriro esleituko da, itxarote-zerrendari jarraituz.

Erabaki hori hartzeak zabalik uzten du Tolosako Udalak adjudikaziodunen bat baztertzeko aukera, baldin eta, behin betiko kalifikazioaren unean, ez baditu betetzen aparkalekuak eskuratzeko baldintzak.

*11. Behin betiko zerrenda, itxarote-zerrenda eta adjudikazio prozedura.*

1. Erreklamaziorik gabeko epea pasa ondoren, edo bere kasuan, hauek ebatzita, Tolosako Udalak behin betiko zerrenda onartuko du eta aparkalekuak esleituko dira. Aparkaleku bakoitzak bere fitxa izango du eta bertan aparkaleku zenbakia, esleipendunaren identifikazio datuak eta bizikletaren identifikazio datuak (bastidore zenbakia) jasoko dira.

2. Era berean, behin betiko itxarote-zerrenda egingo da. Zerrenda hau aparkalekua edukitzeko baldintzak betetzen dutenek baino esleipendun izan ez direnek osatuko dute.

Itxarote-zerrendak eragina izango du adjudikatzeko hutsik geratutako aparkalekuak, alegia, hasieran aukeratutakoetako batek uko egin edo galtzen badu adjudikaziodunaren izaera.

3. Behin adjudikazio-prozesua itxi eta behin betiko itxarote-zerrenda eratutakoan, eskabide gehiago aurkezteko, I erans-

*9. Proceso de adjudicación: sorteo público.*

Una vez calculado el número de viviendas que se derive del total de solicitantes, y en la medida que ese número no exceda de las plazas del parking, cada vivienda tendrá garantizada automáticamente una plaza. Y el resto de plazas se adjudicaran mediante sorteo.

En cualquier caso, todos las aparcamientos de bicicleta se adjudicaran mediante sorteo.

Una vez se publiquen los listados definitivos, se comunicaran el día, la hora y el lugar del sorteo.

El sorteo se realizara en presencia de la secretaria del Ayuntamiento de Tolosa, o en presencia de la persona que ésta designe en su nombre, en el lugar habilitado para ello.

La entrada será libre para todo el que desee presenciar el sorteo.

La secretaria o la persona que ésta autorice para ello levantará acta del sorteo y de las incidencias se registren en su transcurso.

La adjudicación de las plazas se hará en el mismo momento del sorteo; es decir, se asignará un adjudicatario por cada plaza.

*10. Listado provisional de adjudicatarios y lista de espera.*

1. Las listas provisionales de los adjudicatarios y la lista de espera se publicarán en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

Aquellas personas que figuren en cualquiera de las listas podrán realizar reclamaciones frente a la misma en el plazo de tres días naturales a contar desde el día siguiente a su publicación.

2. A los adjudicatarios también se les comunicará la adjudicación provisional de las plazas y se les otorgará un plazo de tres días para poder renunciar o aceptar la misma. La renuncia se hará por escrito en la Oficina de Información.

Los adjudicatarios provisionales devendrán en definitivos cuando se compruebe que reúnen las condiciones requeridas. En caso contrario (es decir, si se comprueba que un adjudicatario no cumple las condiciones establecidas en este pliego y en la normativa vigente), la plaza correspondiente a esa persona quedará libre y se adjudicará de nuevo, siguiendo el orden de la lista de espera.

*La adopción del citado acuerdo deja abierta la posibilidad de exclusión de alguno de los adjudicatarios por parte del Ayuntamiento de Tolosa por no cumplir con los requisitos para acceder a la adquisición de las plazas de aparcamiento, en el momento de la calificación definitiva.*

11. Listado definitivo, lista de espera y proceso de adjudicación.

1. Transcurrido el plazo sin reclamaciones, o en su caso, resueltas las mismas, el Ayuntamiento de Tolosa adoptará acuerdo elevando la lista a definitiva, y procederá a la adjudicación de las plazas de parking. Cada plaza dispondrá de su ficha, en la que se recogerán los datos identificativos del usuario y de la bicicleta (numero de bastidor).

2. Así mismo, quedará confeccionada la lista de espera definitiva integrada por aquellos solicitantes que reuniendo los requisitos exigidos no hayan resultado adjudicatarios de ninguna plaza.

La lista de espera surtirá efectos en orden a la adjudicación de las plazas de parking vacantes, en caso de renuncia o pérdida de la condición de adjudicatario por los inicialmente seleccionados.

3. Una vez cerrado el proceso de adjudicación y conformada la lista de espera definitiva, si se presentaran nuevas soli-

EK\CV GAO-I-2015-06058

kinean dagoen inprimakia bete behar da. Ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak itxaron-zerrendan sartuko dira, zerrenda horretan sartuta daudenen atzetik betiere, eta eskabideen ordena kronologikoan.

Eskabide berri horiek onartzeko Alkatearen baimena beharko da.

4. Aparkalekuaren erabilpen edo okupazio maila edota bestelako interes orokorreko arrazoiak tarteko, 5 urteko denboraldia amaitu aurretik, Udalak, egoki irizten badio, beste deialdi bat burutzeko eskubidea izango du aparkalekuak adjudikatzeko; horretarako, oinarri eta baldintza berriak onartu litezke.

Aurreko denboraldian aparkalekuak erabili dituzten onuradunek izena ematea edukiko dute deialdi berri horretan.

5. Behin betiko esleipena amaituta, aparkalekuko erabiltzaileen eta gora-beheren kontrola Erretengibel, S.A.ren (Plaza zaharra 10) esku geratuko da, erabiltzaile edota interesatu orok bertan lortu ahalko duelarik aparkalekuarekin zerikusia duen informazioa.

*12. Behin betiko adjudikazioaren ondorengo betebeharrak eta erantzinkizunak.*

— Prezioa ordaintzea.

— Arautegian aipatzen diren baldintzak betetzea.

— Urtean behin gutxienez Tolosako Udalak antolatutako erabiltzaileen batzarrera joatea. Ez joateak, aurrez justifikatuta ez bada, aparkalekua erabiltzeko eskubidea galtzea suposatuko du.

— Giltzaren erabilpen arduratsua. Giltza galdu ezkero, aparkalekuaren esleipendunak berria ordaindu beharko du.

— Edozein kasutan esleipenduna baja egoerara pasatzen bada, Tolosako Udalak giltza blokeatu ahalko du.

— Baja eman eta 48 ordutan giltza bueltatu beharko zaio Tolosako Udalari. Bueltatu ezean, giltza blokeatzeaz gain, fidantza galduko du.

— Baja eman eta 48 ordu eta gero bizikleta aparkalekuan jarraituz gero, Tolosako Udalak bizikleta kentzeko eta gordailuan uzteko eskubidea izango du.

— Erabiltzaile orok izango du ingurunea eta instalakuntzak modu egokian erabiltzeko betebeharra. Gainontzean, erabiltzaile zerrendatik baja emango zaio.

— Aparkaleku bakoitzean bizikleta bat aparkatu ahalko da gehienez.

— Tolosako Udalak, erabiltzaileen aldeko inolako kalte ordain eskubiderik eta 30 eguneko aurrerapenarekin jakinaraziz, egun bizikleta gordelekua den Belena patioa beste erabilpen batera bideratu ahalko du.

— Tolosako Udalak ez du inolako erantzunkizunik izango bizikleten aparkalekuko instalakuntzetan gerta daitezken lapurreta, kalte edota aparkalekuaren helburuarekin zerrikusirik ez duen bestelako gertaeren inguruan.

— »7 Hirigune Historikoa» eremutik kanpoko helbideetako batean erroldatzeak aparkalekua erabiltzeko eskubidearen galera suposatuko du.

— Erabiltzaileren batek, aparkalekuaren erabilpen desgokiagatik, sor ditzazken arazoak edo gorabeherak tarteko, Tolosako Udalak beharrezkoak diren neurriak hartu ahalko ditu arazo iturria eteteko; horien artean, erantzuleari lizentzia kentzea.

Tolosa, 2015eko ekainaren 23a.—Alkatea. (6058)

citudes, estas deberán realizarse cumplimentando el formulario del anexo I. Los solicitantes que cumplan con los requisitos establecidos entrarán a formar parte de la lista de espera, siempre por detrás de los ya inscritos en dicha lista y en orden cronológico de las solicitudes.

La admisión de estas nuevas solicitudes deberá ser aprobada por el Alcalde.

4. En caso de que por motivos derivados del uso del parking, nivel de ocupación u otras causas de interés general, el Ayuntamiento considere oportuno realizar una nueva convocatoria para la adjudicación de las plazas de parking antes de que transcurra el periodo de 5 años, tendrá derecho para ello, para lo que podrá aprobar nuevas bases y condicionantes.

Los beneficiarios que hayan hecho uso de las plazas durante el periodo anterior podrán volver a apuntarse a esa nueva convocatoria.

5. Una vez realizada la adjudicación definitiva, será Erretengibel, S.A. (Plaza Zaharra 10) quien se encargue de controlar la utilización del parking y de cuantas incidencias tengan lugar en ella, y de informar a todos los interesados y usuarios sobre cualquier cuestión relacionada con el parking.

*12. Obligaciones posteriores a la adjudicación definitiva.*

— Pago del precio.

— Cumplimiento de las condiciones establecidas en el reglamento.

— Acudir a la junta general de usuarios que se celebrará, a convocatoria del Ayuntamiento de Tolosa, al menos una vez al año. La no asistencia sin justificación previa supondrá la perdida del derecho de utilización de la plaza.

— Uso responsable de la llave. En caso de perdida, el adjudicatario deberá abonar el coste de la nueva llave.

— En cualquier caso, si el adjudicatario se da de baja, el Ayuntamiento de Tolosa podrá bloquear la llave.

— En caso de darse de baja, el usuario deberá devolver la llave al Ayuntamiento de Tolosa antes de 48 horas. En caso de no devolver la llave, además de proceder a su bloqueo, el usuario perderá la fianza.

— En caso de que en las 48 horas posteriores a la baja el usuario no saque su bicicleta del parking, el Ayuntamiento tendrá derecho a retirar la bicicleta y dejarla en su depósito.

— Todos los usuarios tienen la obligación de hacer un uso adecuado del entorno y las instalaciones. En caso contrario, se les dará de baja de la lista de usuarios.

— En cada plaza se podrá aparcar como máximo una sola bicicleta.

— El Ayuntamiento de Tolosa podrá destinar el patio Belena, actual parking de bicicletas, a otros usos, comunicando su decisión con una antelación mínima de 30 días y sin generar ningún derecho de indemnización a favor de los usuarios.

— El Ayuntamiento de Tolosa no tendrá ninguna responsabilidad de los robos, daños y demás incidentes no relacionados con la finalidad del parking que puedan registrarse en las instalaciones del aparcamiento.

— El cambio de domicilio de empadronamiento a una calle externa al ámbito 7 «Casco Histórico» supondrá la pérdida del derecho de aparcar.

— Ante cualquier problema o incidente que pudiera ocasionar algún usuario por el uso indebido de las instalaciones, el Ayuntamiento de Tolosa podrá tomar las medidas pertinentes para atajar el foco del problema; entre ellas, la retirada de licencia al responsable de dichos actos.

Tolosa, a 23 de junio del 2015.—El alcalde. (6058)

EK\CV GAO-I-2015-06058

**ANEXO I: TOLOSAKO BELENA PATIOKO BIZIKLETA GORDELEKUA**

**APARKALEKU-ESKABIDEA**
SOLICITUD DE PLAZA DE APARCAMIENTO

***ESKATZAILEAREN DATUAK*** */ DATOS DE EL/LA SOLICITANTE*

<table>
<tr><td colspan="2">Izen-abizenak<br>Nombre y apellidos</td><td colspan="6"></td></tr>
<tr><td>NAN<br>DNI</td><td></td><td>Sexua<br>Sexo</td><td>Gizonezkoa<br>Hombre</td><td></td><td>Emakumezkoa<br>Mujer</td><td colspan="2">Bestea<br>Otro</td></tr>
<tr><td>Jaiotze-data<br>Fecha de nacimiento</td><td>/ /</td><td>1. Tel</td><td></td><td>2. Tel</td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>Helbidea<br>Domicilio</td><td colspan="3"></td><td>@</td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>Erroldatutako udalerria.<br>¿En qué municipio está empadronado/a?</td><td colspan="2"></td><td>Erroldatze-data ¿En qué fecha?</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td>Langabetua<br>Desempleado</td><td>Bai<br>Sí</td><td></td><td>Ez<br>No</td><td></td><td colspan="3"></td></tr>
</table>

***AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK*** */ DOCUMENTOS PRESENTADOS*

| | |
|---|---|
| | **NANaren kopia** / Copia DNI |
| | **Zinpeko aitorpena** / Declaración jurada |

**Eskaerak aurkezteko epea: ...........**
Plazo de presentación de solicitudes: …................

Tolosa, 2015 / ………………. / …..

Data eta sinadura / Fecha y firma:

Eskabide-orri honetan dauden Datu Pertsonalak interesatuaren onespenaz jasotzen dira, tratamendu automatizatua izango dute eta Tolosako Udalaren Informazio-Sisteman sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiliko dira, eta laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie beste administrazio publikoei edo hirugarrengoei, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa) aurreikusitakoa gertatzen denean. Interesatuek erabili ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak Tolosako Udaleko Informazio Bulegoaren bitartez.

Los Datos Personales contenidos en la presente instancia son recogidos bajo en consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Tolosa. El uso de dichos datos se restringirá excluidamente a la gestión municipal, pudiendo precederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través de la Oficina de Información del Ayuntamiento de Tolosa.

EK\CV GAO-I-2015-06058

**ANEXO II:**

**ZINPEKO AITORPENA**
DECLARACIÓN JURADA

| | |
|---|---|
| Nik, ………………………………………………. ……………………………..… J./And.-k, …………………………………………….. –(e)an bizi naizenak, PK………......... eta ………………………. zenbakidun NANa eta …………..telefonoa ditudanak, **zinpeko aitorpen** hau aurkezten dut: | D/Dña ………… ………………………… ………………… …….. con domicilio en ……………………………………………… CP ………..… DNI nº …………………., teléfono …………..………, presento la siguiente **declaración jurada**: |
| Tolosako 7 "Hirigune Historikoa" eremuan erroldatuta nagoela eta egunean ditudala Tolosako Udalaren zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak. | Que estoy empadronado en el ámbito 7 "Casco Historico" y que estoy al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Tolosa. |

Tolosa, 2015 / ……. / ……..

Sin./Fdo………………………………….



EK\CV GAO-I-2015-06058